

Arazoak eta alternatibak: Gereizpetatik hamaika izpi

Busturialdea-Urdaibaiko landa eremuko krisiei aurre egiten dien prozesu parte hartzailearen sintesia

Aída Lopez, Maialen Zuloaga eta Sara Nicholson Mendieta, Gernika-Lumo 2021

Busturialdea-Urdaibain, azkenengo urteetan, hainbat prozesu parte hartzaile burutu dira eskualdeko landa eremuaren inguruko egoera, arazo eta alternatibak jorratu eta aztertu dituztenak. “Gatazka egoeran dauden lurraldeak”, “Mugi Paisaia” eta “Gereizpetatik hamaika izpi” dira, batik bat, landa eremuaren inguruko narratiba eraldatzaileak jasotzea eta gizartearengandik igortzen diren proposamenak indartzea bilatzen duten inizatibak. Prozesu horietan, hainbat ezagutza bildu dira, pertsonen, sektoreen eta alor desberdinetako jendearen arteko eztabaidak sortu eta zubiak eraiki dira, lurralde honetako gatazkei aurre egiteko irtenbidei oihartzuna eginez.

“Gatazka egoeran dauden lurraldeak” eta “Mugi Paisaia” proiektuetan landa eremuaren inguruan egindako azterlanak oinarritzat hartuta, “Gereizpetatik 11 izpi” proiektuan sakonago joan gara eta, aurrekoekin batera, elikadura subiranotasuna eta perspektiba feminista jorratu ditugu, lurraldean ematen ari diren eta hain ezagunak ez diren hainbat gatazka eta alternatibak jasoz.

Bidean metodologia anitzak erabili ditugu, berritzaileak, eraldatzaileak eta baita tradizionalagoak direnak ere. Ikuspegi feministatik abiatuta, urbanismo feministari ikuspuntu rurala erantsi eta herri txikien bizigarritasuna aztertzeke “zaintza-ibilbideen koadernoak” egin ditugu. Emakumeok herri txikiak, baserri eta auzoak nola bizi ditugun aztertzeke, bertan bizi diren emakume auzokide batzuekin batu eta egunerokotasunean egiten dituzten ibilbideak aztertu ditugu, elkarrekin ibilbide horiek eginez, hauek aztertuz eta horien inguruan eztabaidatuz. “Mugi Paisaia” proiektuan parte hartu zuten emakumeak izanik, azpimarratzekoa da prozesu horretan zehar sortutako elkar ezagutza eta konfiantza ezinbestekoa izan dela ekimen hauek gustura eta gogoz burutzeko. Metodologia, harreman eta parte hartze anitzari esker, landa eremuan bizi duina sortzeko edo mantentzeko erronka desberdinak identifikatu ditugu, adin desberdinetako, identitate eta bizimodu anitzeko emakumeekin ikusmiratik, eskualde osoan islatu daitezkeenak.

Genero ikuspegiarekin aparte, elikadura burujabetza eta naturaren zaintza ere erdigunean kokatu dugu prozesuan zehar. Unibertsitateko ikasle ekintzaileen kolaborazioarekin batera, belaunaldi-arteko eztabaida taldeak antolatu ditugu Busturialdea-Urdaibaiko emakume baserriarekin batera, elikaduraz, ekoizpenaz, nekazal eta abeltzaintza politikez, eta abarrez aritzeko. Aspalditik datozen gatazken eraldaketa handirik sumatu ez den arren, eraldaketaren beharra geroz eta handiagoa dela argi geratu da izan ditugun elkarrizketa eta eztabaidetan.

Ezagutza kualitatiboa, "Gatazka egoeran dauden lurraldeak" proiektuetako ikerlanetan adierazten den ezagutzarekin ere elikatu dugu. Busturialdea-Urdaibaiko biztanleen %73a 16.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan bizi direla eta eskualde osoko biztanleriaren %16,22a lurraldearen %75ean bizi direla jakinik, landa eremuko populazio galerari garrantzi handia eman diogu. Eskualde honetan landa eremua gehiengoa izanik, ekoizpen ekonomikoa ez da nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritzen, lurraldeko bizigarritasunarekin eta elikadura subiranotasunarekin bat ez datorren basogintza intentsiboan baizik. Herrixka txikietan nekazaritza eta abeltzaintza alde batera uztearekin loturik, Urdaibai itsasadarraren bi erriberetan egin diren eraikuntzen artean bizitegi ruralak baino, eraikuntza urbanoak gailendu dira. Gauzak horrela, nekazaritza eta abeltzaintzaren balio erantziak, ustiategi kopuruak eta nekazaritza lurraldera erabilgarria geroz eta murriztagoa izaten ari da.

Jasangarritasun ekonomikoaren aldetik, nekazal ekoizpen murriztasun gain industria jardueraren gainbeherak ere eskualdeko errenta mailan eragin du, Busturialdeko errenta maila EAEko baxuenetarikoa delarik. Azpimarratzekoa da baita ere, udalerriz udalerrir errenta mailak aldagarritasun handia duela. EAEko beste eskualdeekin alderatuz, langabeziaren intzidentzia handienetarikoa da, hamaika eskualdetik Busturialdea zortzigarrena baita.

Landa eremuko udalerriek dituzten gatazka eta alternatiba nagusien artean, hurrengo hauek dira nagusi:

DESPOPULAZIOA ETA LAN AUKERA EZA

Landa gunetan bizitzen geratzeko edo bertaratzeko aukera urriak daude. Udalerrir gehienak despopulazio- eta zahartze-prozesuak bizitzen ari dira, **jaiotza-tasa txikia** delako eta **gazteek eskualde-buruetara edo probintzia-hiriburuetara mugitzeko joera** dutelako (bai etxebizitzarako, bai lanerako). Landa-eremuko **udalerrir txikiak ez dira gai izaten ari biztanleria berria erakartzen duen edota beren biztanleria gaztea sustraitzen duen lana sortzeko**; gainera, leku horietako askotara oraindik ez da interneta iritsi eta etxetik egin litezkeen lanak landa gunen askotan ez da posible egitea. **Lan egiteko biztanleek eskualde-buruetara joan behar** izaten dute, eta **emakumeek dituzten lan-aukerak murriztagoak dira**, genero-rolen prebalentzia, etxeko lanen eta zaintza-lanen gainkarga direla eta. Ondorioz, **herri txikiak eta landa eremuko auzoak "logela-herri" bihurtzen ari dira**. Hala ere, tokiko eta kanpoko biztanleek bertara bizitzen joateko nahia dagoela ikusita eta baserri huts asko daudela jakinda, **lan iturri potentziala** hauteman daiteke baserriak birpopulatzeko eta tokiko ondarea zaindu eta balioesteko. Despopulazioaren eraginez **identitate bizi galdu** arren, belaunaldi belaunaldi, zenbait **balio zehatz transmititzen jarraitzen dira** eskualdean; baserriak bizirautearen beharra eta baserriekiko maitasuna, familiak duen garrantzia eta baserriko bizitzari eusteko beharrezkoak diren zereginak, batik bat. Hori ez ezik, landa eremuko **bizilagunen arteko bizikidetzari eta kolektibotasunari balio handia ematen**

jarraitzen zaio, despopulazioa saihesteko babes eta zaintza iturri baitira.

ETXEBIZITZA SARBIDE MURRITZA ETA ONDAREAREN GALERA

Urbanizagarri dagoen lurzoru urria herri-zentruetara edota eskualde-buruetara mugatuta dago. Ondorioz, landa-nukleo txikiek ezin dute biztanleria gaztea mantendu edo populazio berria erakarri; alde batetik, ezin dituztelako etxebizitza berriak egin, eta bestetik, **baserriak berrizteko oztopo ugari aurkitzen baitituzte** (lizentziak, finantziazioa, etab.) nahiz eta **ondare izugarria galzorian** izan.

KOMUNITATEAREN ETA EREMU KOMUNITARIOEN URRAKETA, ETA GARRAIO PRIBATUAREKIKO MENDEKOTASUNA

Landa eremuko despopulazioarekin lotuta, komunitatearen eta eremu komunitarioen urraketa dago. Herri txikietan auzokideak **askatasunez elkartzeko guneak falta** dira, udalerrian biltzeko eta harremanak izateko espazioak. Haurren zaintzan, **biziguneak ez daude prestatuta umeen segurtasuna bermatzeko** (autoak biziguneen erditik igarotzen dira, pasabideak arriskutsuak dira, abiadura murrizteko seinaleak falta dira, etab.), plazarik edota espazio erosoak izan ezean, beste espazio batzuk erabiltzen dira elkartzeko eta jolasteko hain egoki edo seguruak ez direnak (aparkalekuak, etxeen arteko espazio libreak, etab.), eta familien arteko laguntza ohiturak murriztuz joan dira. Familien barneko loturak eraldatu, ahuldu, eta **errelebo falta** handia dugun ahala, **biztanleriaren zaharkitzea eta dependentzia maila altuagoak** bizi ditugu. Tarteko, gehienetan emakumeek egiten dituzten **zaintza lanak ez dira behar bezala baloratzen** eta partekatzen, gizartean haien deskantsua eta aisialdia errespetatzen ez delarik.

Mugikortasunak herri txiki eta landa eremuen komunitatean eragin handia du. **Ibilgailuentzako errepideak areagotu eta oinezkoenak gutxiagotu dira**, bizilekuen eta bizilagunen arteko loturak urrunduz. **Errepide nagusiek biziguneak zatitu** egiten dituzte, bizilagunen artean sakabanatze handia dago eta oinarritzko zerbitzuetatik urrun bizi dira (hezkuntza, osasuna, tramiteak, kultura, etab.). Mugitzeko, **herritarrak garraio publikoen geldilekuetatik urrun** bizi dira eta **ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna** totala da, hortaz, autoa ez duen edo erabili ezin duenen isolamendua ematen da. Garraioaren mendekotasunak ibil-bideak auto-bide bihurtu ditu, tarte horietako interakzioak eta bizigarritasuna urratuz. Honekin lotuta, oinezkoentzat arriskuak areagotu egin dira. Hala ere, babestu beharrekoak diren **baserrien arteko bide zidorrak, mendibideak eta horrelakoak, gune segurutzat antzematen dira**, bizilagunen arteko elkarguneak dira non zainketa komunitarioa ematen den. Gainera, **elkargune izan diren espazioak ondare inmaterialaren sorleku eta gotorleku dira** (plazak, azokak, erromeriak, eskola, adibidez), bertan ohiturak, hizkuntza, memoria eta belaunaldi belaunaldi igarotzen den jakituriaren ondorengotza babesten da.

Herri txikietan bizia egiteko elkarguneak falta diren honetan, **bizigarriak diren espazioak sortzea premiazkoa dela sinesten da**. Horretarako, antzinako eskolak edo horrelako beste ondare motak biziberritu ahalko genituzke, hauen memoria, zaintza eta balioa berreskuratuz.

NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA JARDUERA MURRITZA

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduera tradizionalak gero eta murrizagoak dira, eta, kasu batzuetan, ingurumenarentzako kaltegarri diren jardunbideekin lotuta daude. Dagoen nekazaritza eta abeltzaintza jarduera urria desagertzen doa adindunak hil, **belaunaldi-arteko lekukotasun eza eta praktika eta erabileren jakintza tradizionala galtzen** goazen heinean. Horrekin batera, **bertoko haziak galtzen ari** gara eta hazien salerosketaren mende gaude. Baserritik bizi eta ekoiztu nahi izatekotan, generoa saltzeko, **gehiengoaren eskura ez dagoen inbertsio-gaitasuna eskatzen da**. Politika zehatzak bete behar dituzten produktuak merkaturatzea are eskuraezinagoa da, izan ere, urte luzez eskatu bada ere, **eskualdean ez dago elikagaien eraldaketa-zentro publikorik** kontserbak, zukuak, esnekiak eta bestelako produktu eraldatuak egiteko, besteak beste. **Ezagutza administratiboa eta finantzarioaren exijentzia ere gero eta handiagoa** da, geratzen diren nekazari eta abeltzain gutxiak mugatzen dituelarik. Gauzak horrela, **administrazioaren eta baita komunitatearen laguntza eskatzen dute**, zaintza-sareak indartzeko eta ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko lotura hobetzeko. Azken urteotan tokiko produktuen eta produktu agroekologikoen eskariak gora egin eta kontsumo-sare esanguratsuak (Jangurie, Baserritik Gernikara, etab.) sortu eta garatu diren arren, **ekoizleak falta dira** eskariari erantzuteko. Batetik, **gabezia hori zoru produktiboak gero eta urriagoak direlako, daudenak babesteko harrimintarik ez dagoelako eta nekazaritza-jarduera sustatzen duten programak eraginkorrak ez direlako** ematen da, azken hauek eskaintzen dituzten lurretan ez baitituzte bizigarritasun aukerak barne hartzen. Bestetik, baserritarra izateari ez zaio balio duina ematen, beraien ekoizpen gaitasuna gutxiesten da eta estigma negatiboa gailentzen da, kanpotik landa eremuko bizia erromantizatzen delarik.

Basogintzari dagokionez, **langile migratzaileei** esker mantentzen den sektorean, nabarmentzekoa da **lan-istripuen tasa handia** eta lur eta landaketak herentzian jasotzen ari diren belaunaldiek ez dakitela horiekin zer egin. Ezagutzari eta erreferente berririk ez dutenez, aurretiazko jardunbideei eusten diete, nahiz eta helburu ekonomikorik ez izan eta ingurumenean duten eraginaz jabetzen ez diren.

ELIKADURA OHITUREN ERALDAKETA ETA PLAZA-MERKATUA

Elikadura ohituren aldaketa landa eremuan eragin handia izan du; urteetan zehar, **lekuko elikagaien ekoizpena eta kontsumoa beherantz egin du, merkatuak eta salmenta gunek ahulduz** eta murriztuz. Herritarrok jaten dugun elikagaietatik oso ehuneko txikia da plaza-merkatuetan erosten duguna. Bitartean, nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak murrizten diren ahala, **merkatuan gero eta**

postu gutxiago daude, eta plazan dauden baserritar saltzaileak ez dira gailentzen bir-saltzaileen gainetik. Plaza-merkatua turistikoki goraipatzen bada ere, **agintariei plaza zaintzea** eskatzen zaie, baina **salmentarako trabak ere gero eta handiagoak** eta korapilatsuagoak dira, baserritar andra zaharrek desagerrarazi nahi dituztelaren sentsazioa dute. Hau horrela bada ere, **merkatuak elkargune garantzitsuenetariko bat izaten jarraitzen du**, ekoizleen arteko loturak sustatu eta mantentzen ditu eta bertan salmentan ari diren **baserritar eta ekoizleek merkatua zaindu eta bizirik mantentzeko irmoa dute.**

Hegoera hau izanik, prozesuetan parte hartzen ari diren emakumeek, urteetan landa eremuaren inguruko diagnostiko askoren lekuko izan ostean, ekintza eraginkorren falta somatzen dute. Argi dituzte haien arazoak, eta argi ere zenbait proposamen:

- ❖ Belaunaldi-erreleboa sustatzera bideraturiko zaintza politikak, programak eta alternatibak bultzatzea. Adibidez, nekazaritzan dihardu nahi duten gazteak bolondreski baserritar emakume nagusiak laguntzeko programak sustatzea.
- ❖ Herri moduan elikadura ekoizteko gai garela sinistea, gaitasun kolektiboen alde apustua egitea.
- ❖ Eskualdean bertoko elikadura babestea.
- ❖ Merkatuan, bir-saltzaileak eta ekoizleak bereizteko neurriak hartzea.
- ❖ Agintariek, ekoizleentzako lagungarri diren tresneria eta politikak eskeintzea. Adibidez, tresneria publikoa eta produktuak eraldatzeko eta konserbak, zukuak, eskekiak etabarrak ekoizteko “eraldakuntza zentrua” sortzea, ekoizpena, osasun bermeak eta salmenta politikak betetzea denontzako eskuragarria izateko.
- ❖ Busturialdean nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren gaineko formakuntza zentroak sortzea.
- ❖ Herrietako merkatuak eta ekoizleen salmenta gunek babestea.